

XX. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Ondasun miragarriak dituzu, Jauna, maite zaituztenentzat;
 biztu gure bihotzetan zeure maitasunaren garra,
 Zu gauza guztietan eta gauza guztien gainetik maite izanez,
 irits ditzagun guk asma ahala baino handiagoak diren Zuk agindutako ondasunak.
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Jr 38, 4-6. 8-10

*Herri guztiarentzat auzi bide eta haserre gizon izateko
 ekarri ninduzun mundura.*

Jeremias Profetaren liburutik

Egun haietan, honela zioten handikiek erregeri: «Hil egin behar da Jeremias hori; bere hitzez, herrian gelditzen diren gudamutilak eta herritar guztiak makaldu besterik ez baitu egiten. Gizon hau ez dabil herriaren on bila; hondamen bila dabil».

Honela erantzun zien Sedezias erregeak: «Hor duzue zeuen esku. Erregek ez dezake ezer egin zuen aurka».

Hartu zuten, beraz, Jeremias; eta Melkias errege-semblearen urtzuloan sartu zuten, gartzelako atarian; sokaz jaitsi zuten; urtzulo hartan ez zegoen urrik, lohia baizik; eta horrela, Jeremias lohitan sarturik gelditu zen.

Atera zen Ebedmelek jauregitik, eta honela mintzatu zitzaion erregeri: «Errege, ene jauna: Gaizki egin dute gizon horiek, Jeremias profeta horrela erabiltzea; urtzuloan sartu baitute, eta han goseak hilko da»; (izan ere, ez zegoen ogirik hirian).

Orduan erregek honela agindu zion Ebedmelek etiopiarrari: «Hartu zeurekin hiru gizon, eta atera ezazu urtzulotik Jeremias profeta, hil baino lehen».

ERANTZUN SALMOA: Sal 39, 2. 3. 4. 18

R/. Jauna, zatozkit azkar laguntzera.

Itxaron dut Jaunagan, itxaron,
 makurtu zait eta nire oihua badu entzun. R/.

Atera nau herio-zulotik,
 zingira lohitsuatik;
 harri gainean dizkit oinak tinkarazi,
 eta nire urratsak sendoarazi. R/.

Ahoan eresi berri bat ipini dit,
 gure Jainkoarentzat gorespen;
 hau ikusiz asko beldurtuko dira,
 eta Jaunagan izango dute itxaropidea. R/.

Ni gizagaixo eta behartsu naiz,

baina Jauna da nitaz arduratzen;
laguntzaile eta salbatzaile zaitut:
ene Jainko, arren, ez luza. R/.

II. IRAKURGAIA: Heb 12, 1-4

*Joan gaitezen, eraman handiz,
dagokigun borrokaldira.*

Hebertarrei egindako epistolatik

Senideok: Honenbeste testiguren hodei erdian gaudenez gero, utz ditzagun zama guztiak eta inguratzen gaituen bekatua; eta joan gaitezen, eraman handiz, dagokigun borrokaldira, sinesmenaren iturri eta helburu den Jesus gogora erakarriz. Honek ere, izan zezakeen atseginarene ordez, gurutzea eraman zuen, lotsakizuna gutxietsirik; eta orain Jaungoikoaren aulkiaren eskuin aldean jarririk dago.

Gogoan eduki ezazue, bada, halako erasoaldia bekatariengandik eraman zuena; ez etsi, ez galdu kemenik. Oraindik ez zarete odola isurtzeraino iritsi, bekatuaren aurkako borrokaldian.

EBANJELIOA: Lk 12, 49-53

Aleluia: Jn 10, 27

R/. Aleluia.

V/. Nire ardiek aditzen dute nire mintzoa
—dio Jaunak—;
Nik ezagutzen ditut,
eta haiek ondotik datozkit. R/.

Ez naiz etorri bakea ekartzera, zatiketa baizik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Lurrean sua jartzera etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko sutan balego! Bataio bat hartu beharra daukat, eta zer larria, hori bete artean! Lurrera bakea ekartzera etorri naizela uste al duzue? Ezetz diotsuet, zatiketa baizik. Hemendik aurrera, bost bizi diren etxe batean, zatituak egongo dira: hiru biren aurka, eta bi hiruren aurka; aita semearen aurka, eta semea aitaren aurka; ama alabaren aurka, eta alaba amaren aurka; amaginarreba errainaren aurka, eta erraina amaginarrebaren aurka».

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna, gure dohain hauek;
beroein bidez harreman miragarriak ditugu Zurekin; iguzu, Zuk emanak eskainiz,
Zeu izan zaitzagula sari.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jainko Jauna, sakramentu honetan Kristorekin bat eginik,
zure errukiari apalik deika gaude:
lur honetan Kristoren antzeko izanik,
zeruetan Haren lagun izatea irits dezagula.
Jesu Kristo.